

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARGOMAIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2020ko bigarren seihiilekoko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea**

Argomaizen, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2020ko bigarren seihiilekoa) ordaindu behar dutenen errolda egin da. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baldiodenez jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek Argomaizko (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea 2021eko martxoaren 15ean hasi eta apirilaren 15ean bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Helbideratutako ordainagiriak 2021eko apirilaren 11n kobratuko dira.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Argomaizko Administrazio Batzarrak kudeatuko du zuzenean zordunketa, ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaruarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Argomaiz, 2021eko otsailaren 5a

*Lehendakaria*

*ROSA MARÍA SOLETO GARCÍA*